Erref. kodea: LAF-107-785

Izenburua: Gutuneria: AGIRRE LEKUBE, Jose Antonio [Ikus gainera: 101-7]

Aguirre, jaun agurgarria,

Nere hitz chume huntaz nahi nuke ongi ethorri suhar bat erran, Eskual-herriaren ongi egile handi bati.

Argentinak bere atheak arrotz guzieri hetsi baitzituen, zuk nahi izan duzu hango buruzagien bihotza hunkitu.

Onhart-arazi diozute Eskualdunak ez direla bertze herrietakoak bezala : ez dutela nehorat ekartzen nahasmendurik, bainan bai lana eta bakea.

Zuri esker, egin dute bada lege berezi bat. Edozoin Eskualdun libro laitekela Argentinan sartzea, herri edo asmu berechkunderik gabe. Paperik ere ez behar. Eskualdun odola aski, zure hitza berme.

Horra nola milaka eskualdunak izan duten lan eta ogi, bai berentzat, bai beren haurrentzat.

Zuri esker, etsimendua urrundu da asko bihotzetarik; eta zonbat etchetan ez dute beren ezagutza othoitzetan altcharazi Jainkoaren ganat?

Uztaritze huntan, Lapurdiko herri-buruan, nola utziko zintugun iragaiterat, esker mila erran gabe, Eskual-herriari egin diozun ongi miresgarri hortaz! Bai, bihotz bihotzetik, galde egiten diogu Jainkoari, ordain diezazun handizki bai zuri bai zure Argentina onari!

Esker mila!

Monsieur Aguirre,

C'est à l'un des grands bienfaiteurs du Pays Basque tout entier que veut monter mon humble salutation.

Au moment où les portes de l'Argentine se fermaient à tous les étrangers, vous avez réussi à émouvoir les chefs de votre gouvernement. Vous avez fait admettre une énorme exception : tous les Basques (sans distinction de pays, d'idée ou de milieu) seraient reçus en Argentine, même sans papiers officiels, au seul titre de leur race. Avec vos amis, vous vous portiez garant de la loyauté et de l'honneur de vos compatriotes basques, connus ou inconnus, malgré les risques que comportait une pareille générosité.

Ainsi, grâce à vous, des milliers de Basques ont trouvé du travail et du pain pour eux et pour leurs enfants. Grâce à vous, l'espoir un moment vacillant s'est raffermi dans beaucoup de familles, et peut-être des coeurs reconnaissants ont pensé à dire merci à Dieu.

Dans cette capitale du Labourd, nous ne saurions vous voir passer sans vous remercier, simplement mais ardemment, du service immense que vous avez rendu à tout le Pays Basque.

Nous demandons au Ciel qu'il vous le rende, à vous et à la généreuse Argentine.

Esker mila !